

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2023ko martxoak 10 · 1262 zenbakia

## GIZARTE JUSTUAGOA ALDARRIKATZEN



2x229€

ERREFLEXUEN AURKAKO

**MÓ BETAURREKO  
PROGRESIBOAK**



855 8098

Bidebarrieta, 2

943 20 05 22

EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multioplicas.com



Kontuz! Zure optikaren konparazioak ez dira garunak.





# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,  
Periodontozian, implantologian.  
Leongo Unibertsitatea.  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
Bartzelonako Unibertsitatea.  
Hortz-Estetikari Diplomatua.  
Madrilgo Unibertsitate Kompletuentzia.  
Hortz-Estetikari Diplomatua.  
Auztan Institutua. Bartzelona.  
Eteagabeko Formakuntza.  
New York-eko Unibertsitatea.  
Oklusioan Graduondoa.  
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara  
Zapatuetan:  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziario-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Eibarko Klub Deportiboko mendi taldeak antolatutako Mendi Jardunaldiekin hasteko, Alex Txikon alpinistak "Arimaren Mendia" izenburuko emanaldia egin zuen eguenean, Coliseo antzokian. Manaslu mendia neguan igo berritan, bere lehenengoetako hitzaldia izan zen Alex Txikonena eta aurretik ...eta kitto! astekarirako elkarrizketa egin genion.

etakitto.eus



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Eibarren ere Osasun Publikoaren alde!

Aurreko asteetan jakin dugu Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko herritarren artean, egoera ekonomikoaren atzetik osasuna dela kezka nagusia. Pandemiaren aurretik zantzuak zirenak, pandemiaren garaian areagotu egin ziren, eta egun denon ahotan da Osakidetza txarrera egiten ari den ibilbidea. Gainera, nariadura prozesu hori, zoritxarrez, oso objektiboa da: gutako bakoitzak pairatu ez badu, etxeko norbaitek edo lagun batek nozitu baitu. Adinekoen artean sarritan Osakidetzaren gaia hizpide izaten dugu, eta zer esanik ez haur txikiak ditugunok. Azken astean, Debabarreneko ESIn itxaron zerrenden datuak eskuratu ahal izan ditugu, eta datu horiek ahoz-ahoz zenbiltzan zurrumurruak eta orain arte genituen sentsazioak baieztatu dizkigute. Sei adibide baino ez ditugu aipatuko:

- Debabarreneko ESIn ez dago dermatologia zerbitzurik
- Errehabilitazio kontsultarako 10 hilabete itxaron behar da
- Ekografia, 4/5 hilabete
- Erresonantzia, 6-7 hilabete
- Kolonoskopia errutinazko frogarako, 12 hilabete
- Kirofanoa, urtebete

Argi eduki behar dugu horrelako egoerak bere arrazoiak badituela, hau da, poliki-poliki osasun publikoa pobretzen ari dira, gutako gehienok aseguru pribatua kontrata dezagun, eta zerbait egiten ez badugu bide horretan sakontzen jarraituko dute. Horregatik beharrezkoa dugu gure ahotsa altxatzea Osasun Publikoaren alde, Osakidetzaren alde, Jaurilaritzak diru gehiago inbertitzeko, langile gehiago enplegatze, langileen lan baldintzak hobetzeko... Finean guk herritarrok jasoko dugun zerbitzua kalitatezkoa izan dadin.

Otsailaren 21ean Eibarren bertan, eta 25ean Donostian, Osakidetzako langileekin batera gure haserrea adierazi genuen bezala, martxoaren 23rako Eibarren mobilizazioa planteatzen dugu, herritarrok sufritzen ari garen itxaron zerrendak salatze eta Osasun Publikoa defendatzeko. Hitzordua, arratsaldeko 18:00etan izango da, Toribio Etxebarriako ambulatioaren aurrean. Animatu eta parte hartu!

**Eibarko Pentsionistak, Eibarko Ernai, Matraka Neska\*  
Gazte Taldea eta Nalua Eibarko Feministak**

# Astean esanak



‘Intrusismoa’ deitu dio EAJko Donostiako zinegotzi batek kalean bizi direnei janaria banatzen ari direnen lanari. Denak izan behar du monetizatua, merkatuek gidatua, eta horren arauetara bideratua. Bitartean, gure kaleetan zubi azpitan edo aterpe izan daitezkeen tokietan hirigintza erasokorra erabiltzen dute. Edozeinek lo egin dezakeen edo etzan daitezkeen tokietan kamerak, egon behar ez zuten metal zatiak edo iltze modukoak jartzen dituzte. Kaleko arreta ematen duten jendearen lana zaildu, eta haiei jaten ematen dietenak kriminalizatzeko saiakerak areagotzen ari dira etengabe.

**GORKA JULIO, zutabegilea**

Etxeko langile egoiliarrena, zaintza sistema gisa, desagerarazi behar da. 24 ordu patronalaren esanetara egotea onartezina da. Ez dago arazo moralik esaten denean milaka andre daudela 24 ordu lanean urteko 365 egunetan? Diputazioak edo gizarte zerbitzuek kontratu bat aztertu eta ikusten dutenean etxeko langile batek astean 40 orduko kontratua duela, eta egoiliar dagoela, baina zaintzaile bat dela, eta ez etxeko langile bat... Iruzur bat da hori. Legeak baimenduko du, baina hor arazoa dago. Zaintzaile profesionala eskatzen da, baina erregimen berezi batean kontratatzen da, eta administrazioa hor dago. Horrekin amaitu beharra dago. Horretarako, irabazi asmoa bukatu egin behar da zaintzan: ekonomia sozial eta solidario batean pentsatu behar da.

**SILVIA CARRIZO, Malen Etxe-ko ordezkaria**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ONDORENBAKO** → Antzu, fruiturik gabekoa, alperrikoa. “Ondorenbako lanetan bizi guztian jardutzian lako kastigurik ez dago”.

**ONDORENGO** → Normalean, pluralean. Gaztelerazko ‘descendiente’. “Gauzarik tristiena, gurasuen pekatuak ondorenguak erantzun biharra”.  
Hurrengo. “Ondorengo egunetan bazan Eibarren zeresana kantarixak zirala ta ez zirala”.

# 1943

## Maritxu Salaberriaren despedida

Eibarko emakumeen artean horrelako argazkiak egitea oso modan egon zen sasoi batean. Ezkondu baino lehen, lagunekin batera ospatzean egiten zituzten eta, gainera, sarritan egunkarian ere kaleratzen zituzten. Argazki hau Castrillok egin zuen.



### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 10</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>ZAPATUA 11</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>DOMEKA 12</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>ASTELEHENA 13</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>MARTITZENA 14</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustín, 5)
<b>EGUAZTENA 15</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUENA 16</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 17</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>GAUEZ BETI, 2023an,</b> <b>Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Carmen Larrañaga Maiztegi.** 80 urte. 2023-03-01.
- **Ceferino Gonzalez Tirados.** 95 urte. 2023-03-02.
- **Javier Gabilondo Lafuente.** 80 urte. 2023-03-02.
- **Javier Landaluze Gabilondo.** 92 urte. 2023-03-03.
- **Maribel Marfull Irazola.** 83 urte. 2023-03-03.
- **Manoli Eizagirre Gonzalez.** 98 urte. 2023-03-04.
- **Urbano Feijoo Alvarez.** 72 urte. 2023-03-05.
- **Maritxu Etxaburu Maguregi.** 101 urte. 2023-03-06.
- **Felisa Bolinaga Askasibar.** 89 urte. 2023-03-06.
- **Bittori Orrantia Gonzalez.** 90 urte. 2023-03-06.
- **Andres Martinez Cervino.** 65 urte. 2023-03-07.
- **Ines Chana Simon.** 75 urte. 2023-03-07.

### Jaiotakoak

- **Kepa Manzisidor Fernandez.** 2023-02-25.
- **Peru Azpiazu Gomez.** 2023-02-27.
- **Ayman Zaid El Khayati.** 2023-02-28.
- **Ekain Sarasketa Crespo.** 2023-02-28.





Igone Lamarain, Gorka Errasti, Ana Telleria eta Jon Iraola, astelehenero agerraldian.

## PSE-EE eta EH Bildu udal aurrekontuaren inguruko adostasuna lortu dute

Eibarko Udaleko 2023ko aurrekontuak onartzea ahalbidetuko duen akordiora ailegatu dira PSE-EE eta EH Bildu udal-taldeak, astelehen goizean egindako prentsaurrekoan jakinarazi zuten bezala. Adostutakoaren inguruko xehetasunak ere azaldu zituzten Jon Iraola alkateak eta Ana Telleria alderdi sozialistaren bozeramaleak, Eibarko EH Bildu taldeko Gorka Errasti bozeramale eta Igone Lamarain zinegotziekin batera.

Negoiazio-prozesu baten ondoren, sozialistek egindako 45,8 milioiko aurreproiektuari bi taldeek (Eibarko sozialistek eta EH Bilduk) proposatutako zuzenketak gehitzea erabaki dute. Horrela, guztira zuzenketen zenbatekoa milioi bat eurokoa da. Jon Iraola alkatearen hitzetan, “udal-aurrekontuek, ekitaldi honetan ere, Osoko Bilkuraren gehiengo zabal baten babesari izango dute, eta hori arrakastatzat jotzen dugu”. Gorka Errasti EH Bilduko boze-

**Hainbat esparrutan lanean ari diren elkarte eta kolektiboentzat laguntzak igotzea adostu dute**

ramalea ere pozik agertu da ados ipintzea lortu dutela eta: “Izan ere, herriaren ikuspegi estrategikoa eta eibartar guztien bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko neurriak adostu ditugu”.

Bi taldeek adostu dituzten zuzenketetatik, diru-partidarik handiena (300.000 euro) Eibar-ko ekialdea hobetzera bideratuko da: zehazki, Barrena eta Barakaldo kaleetako jolas-parkeak berritzera eta berriro diseinatzen, auzoko haurren eta gurasoen eta Urkizuko ikastetxearen beraren parte-hartzearekin. Gainera, 60.000 euroko partida bat sartuko da aurrekontuan, hiriko beste eremu batzuetako haur-parkeak berritzeko eta estaltzeko azterlan bat egiteko.

Bi taldeek estrategikotzat jotzen dituzten beste proiektu batzuk hauek dira: hilerria berregokitzea, aisialdirako berdegunea sortzeko eta aparkaleku-plazak handitzeko (100.000 euro); hutsik dauden etxebizitzaren inguruko azterlana, alokairurako neurriak diseinatzeneko (100.000 euro); etxebizitza-tutelatuen udal-parke bat sortzeko bideragarritasun-plana (25.000 euro); Itzioko parkeen karabana-parking bat egokitzea (100.000 euro), etabar.

### Kultura eta kolektiboetako babesari

Adostutako akordioan, kulturak eta hainbat esparrutan lan egiten duten kolektiboetako babesari garrantzi berezia eman diete, horiek indartu eta hobetzeko neurriak adostuta. Horrekin batera, tokiko ekoizleak ikusarazteko eta babesteko ekimenak abiatuko dira. Eta indarkeria matxistaren biktimek guztientzat arreta psikologikoa bermatzeko, 5.000 euroko partida sartu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretara bideratzen duen aurrekontua agortu delako.



## Julen Robles izango da PP alderdiaren alkategaia udal hauteskundeetan

Julen Robles eibartarra izango da PP alderdiaren alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetan. Carlos Iturzaiz Euskadiko PP-ren presidentea astelehenean aurkeztu zuen Eibarko gaztearen hautagai-tza, Untzagan egindako ekitaldian. Alderdiaren helburu nagusia Eibarko udalean ordezkari-tza lortzea dela diote eta, lehentasun gisa, “Eibarrerako segurtasun, askatasun eta enplegu gehiago” dauzkate. 2015eko hauteskundeen aurretik alderdi popularrak Eibarren zituen bi zinegotziak galdu zituztenetik, azken bi hauteskundeetan ez du ordezkari-tzarik lortu gurean.

## EAJ-PNVren udal-taldeak akordiorako borondatea duela berretsi dio alkateari

Aste honetan Eibarko PSE-EE eta EH Bilduren udal-taldek 2023rako udal aurrekontuaren inguruan akordioa lortu dutela jakinarazi zutela eta, Eibarko EAJ-PNVren udal-taldeak Alkatetzara idatzi zuen, Jon Iraolak esandakoari erantzunez. Josu Mendicutte taldeko bozerama-leak bertan dioenez, “komunikabideen bidez jakin dugu, zure ustez, ezinezkoa dela Eibarko EAJ-PNV udal-taldearekin akordioak lortzea, akordiorik ez lortzeko, proiektuak oztotatzeko eta dinamizatzeko es-

trategia duelako. Eibarko Udaleko EAJ-PNV eta PSE-EE udal-taldeen arteko negoziazio-bileretan parte hartu ez duzunez, jakinarazi nahi dizugu gure aldetik 2023ko kontuak onartzea eskaini zitzaioela zure alderdiari, inolako zuzenketarik sartu gabe: zure alderdiak eta nik azken ekitaldietan sinatutako akordioak gauzatzeko konpromisoa baino ez genizun eskatzen (eta ez 2023an nahitaez), gaur egun oraindik bete gabe baitaude”. Proiektu horien zere-rrenda ere bidali diote alkateari.



**Lore, Landare eta Zuhaitz  
XIII. Azoka**

Ordua: 10:00 - 14:30  
11:30 Haurrentzako tailerrak

**Martxoak  
18**

**Eibarko Urkizu Plazan**

deKOLORE



## Eibarren ertzainen presentzia handitzeko eskatu dio Udalak Eusko Jaurlaritzari

Azken hilabeteetan herriko merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetan egin dituzten lapurretan aurrean, Eibarko alkateak neurri eta baliabide gehiago eskatu dizkio Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuari. Alkatearen arabera, “Ertzaintzak lapurreta-kopurua ez dela gehitu jakinarazi arren, azken asteetan egiaztatu da gero eta ohikoagoak direla. Lapurretak gertatzen ari dira merkataritza- eta ostalaritza-establezimendue-

tan, eta baita ibilgailu partikular eta etxebizitzetan ere; kasu batzuetan, diru-kopuru handiak edota balio handiko objektuak lapurtu dituzte, eta, gainera, kalte material handiak eragin dituzte. Egoera horren ondorioz, kezka handia sortzen ari da bai Alkatetzan bai herritarrengan, oro har”. Gauzak horrela, Eibarko segurtasuna indartzeko, “premiazko neurriak hartzeko eta gure herrian ertzainen presentzia handitzeko” eskatu dio alkateak Erkorekari.

## Martxoaren 31n egingo du Batzar Orokorra Armeria Eskolako Elkarateak

Armeria Eskola Elkarteko 2023ko Batzar Orokorra martxoaren 31n egingo da. Ekitaldia bazkide-tuta ez dauden enpresa, erakunde eta abarrei ere zuzenduta dago eta hitzaldia ere izango da: “Cómo reinventarse en esta década de profundas transformaciones (sin morir en el intento)”, Guillermo Dorronso-ro-ren eskutik. Hitzaldiaren ondoren, amaiera ekitaldia egingo

du Iker Estensorok, Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikoko Zuzendari Nagusiak. Amaitzeko, Networking-erako gune bat egongo da eta bertan intsigniak emango zaizkie 1973ko promozio-koei. Izena eman nahi duenak 943203244/633909388 telefono zenbakira deitu dezake edo, bestela, elkartea@armeriaeskola.eus helbidera idatzi.

## Langabezia tasak gora egin du Eibarren, %11,72koa izateraino

Otsaileko datuen arabera, 1.488 lagun daude langabezian Eibarren eta langabezia-tasa %11,72koa da. Horrela, langabeziak gora egin du azken hilabeteen herrian (joan den hilabeteko datuen arabera 1.449 lagun zeuden langabezian eta langabezia-tasa %11,41koa zen). Eskualdeko langabezia-tasa, bestetik, %10,10ekoa da. Debak jarraitzen du langabezia-tasarik baxuena izaten (%6,40) eta Sorraluzek altuena (%12,49).



## Make In! programarako izen-ematea zabalik

Debegesa Garapen Agentziak, Debarreneko ekintzailertzari laguntzeko beste eragile batzuen laguntzarekin, Make In! programaren 2. edizioa jarri du martxan. Bertan parte hartuko duten proiektuak (start up) hautatzeko prozesua martxoan zehar egingo dute, eta ekimena apirilaren 24an hasi eta ekainean amaituko da. Make In! programan parte hartzeko epea zabalik da dagoeneko eta hilaren 31ra arte apuntatu daiteke, Debegesaren webgunean ekimenari eskainitako atalean.





## Fabrikazio mekanikoari eta soldadurari buruzko prestakuntza programa berri bat abiatu dute langabezia daudenentzat

Udaleko Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailak enplegua sustatzeko prestakuntza-programa berri bat jarriko du abian, herrian erroldatuta, langabezia edo lan prekarioa duten eta Lanbiden izena emanda dauden pertsonentzat. Fabrikazio mekanikoaren eta Soldaduraren arloko prestakuntza zentratzen da programa. Programak Armeria Eskola Elkarteak emango du eta 15 lagunek parte hartu ahal

izango dute. Apiriletik ekainera bitartean irauko du, eta irailera arte luzatu ahal izango da, enpresako praktikak, tutoretzak eta laneratzeko-prozesuan laguntzeko saioak eginez. Izena emateko epea martxoaren 24ra bitartekoa izango da. Aurrez aurre egin ahal izango da, Pegoran; edo modu elektronikoa, [www.eibar.es](http://www.eibar.es) udal web orriaren bidez. Izapide hori elektronikoki egiteko, ziurtagiri digitala izatea behar da.

## Lorea Urkia eibartarra Miss Grand Spain izateko bozketak hasi dira

Miss Grand Euskadi lehiaketa irabazi ondoren, Lorea Urkia eibartarra Miss Grand Spain izateko lehiaren egongo da hilaren 19tik 26ra Tenerifen (Kanariar Uharteetan). Ekitaldi nagusia orduan egingo bada ere, Instagramen lehen bozketak hasi dira, @missgrandspain kontuan. Botua emateko, parte-hartzaileen argazkiei 'atsegin dut' eman eta zerbait aipatzeko aukera egongo da. Lau irabazle egongo dira eta sarituek Tenerifen ostatu hartuko duten hotelaren iragarki batean parte hartzeko aukera izango dute.



## Errigoraren udaberriko kanpaina martxoaren 29ra arte egongo da martxan

Errigoraren eskutik eguneroko kontsumo ohituretan eragiteko jaio zen udaberriko kanpaina martxan dago. Martxoaren 29ra bitartean, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta fruitu lehorrak eskatzeko aukera dago. Guztiak dira kalitate bikainekoak eta guztiek daramate Errigora Balioak berme-zigilua. Beste batzuetan bezala, es-

kaerak Internet bidez egin behar dira, [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) helbidean. Erositakoaren banaketa, berriz, Eibarren bertan egingo da (tokia zehazteke dago), maiatzaren 10ean (eguztana), 17:00etatik 20:30era. Gogorarazi dutenez, Errigoraren "Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura" kanpainari esker, "bertako elikagaien alde egingo duzu eta euskara indartuko duzu, auzolana bultzatzeaz gain".



# Moreak bete ditu kaleak beste behin

Eibarko Mugimendu Feministak deituta, manifestazio jendetsua egin zen eguaztenean, "Denon bizitzak erdigunean" goiburuari jarraituta. Emakumearen Nazioarteko Egunerako aldarriarekin batera, Nalua eta Matraka talde feministek beste salaketa bat egin zuten: martxoaren 8aren bezperan 600 euroko isuna ailegatu zitzairen, azaroaren 23an Eibarren gertatutako bortxaketa salatzeke 10 minutuz "modu baketsuan" errepidea mozteagatik. Bestalde, Udalak bat egin du aurten ere Eibarren antolatutako ekimenekin eta Udalbatzak adierazpen instituzionala onartu du, emakumeen lidergoa eta boterea berdintasunean erabiltzeko baldintzak bultzatzeko konpromisoa hartuz. Eta Kaxa sormen eta mugimendu gunearen eskutik zapatuan Untzagan egindako "Kateak apurzen" dantza ikuskizunak harrera ezinhobea izan zuten. Martxoaren 8-ko lantaldearen egitaraua hilaren amaierara arte burutuko da.

DANTZA SAIOKO ARGAZKIAK: IRATI AYERZA.

Dantza ikuskizuna gure  
YouTubeko kanalean:









# Kontsumitzaileen aingeru zaindaria

Pare bat astez itxita egon ondoren, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak (KIUB) otsailaren hasieran zabaldu zituen atea berriz ere. David Saceda Dominguez dago orain bulegoaren buruan eta lana maite duela aitortu digu. Gogotsu ekin dio lanari eta bere esku dagoena emango du herritarren kexak eta kontsultak jaso eta, beharrezkoa bada, eskabideak egiteko, kontsumitzaileen eskubideak bermatuak izan daitezten.

**G**etxoko eta Abanto-Zierbenako KIUB-etan eta abokatu-bulego baten kontsumo arloan lan egin ondoren, jaioterritik hurbil hasi du bide berria David Sacedak, Ermuko baita. “Kontsumoaren inguruan egin izan dut lan beti eta, ondorioz, ondo ezagutzen ditut kontsumitzaileen eskaeren eta abarren inguruan dauden prozesu guztiak”, esan digu. “Oso gustora nago Eibarren, zerbitzu ona emateko baldintzak ematen direlako. Beraz, hona datorren jendea arazo batekin datorrenez, ahalik eta arreta onena ematen saiatzen naiz”.

KIUB-ek hiru zerbitzu eskaintzen ditu batez ere: kexak, kontsultak eta eskabideak. Esanda doa, gainera, KIUB-ek zuzenbide administratiboa jarraitzen duela eta parte-hartzaileek betebeharrak dituztela horren aurrean.

Kexei dagokienez, honakoa argitu digu Sacedak: “Adibidez, kontsumitzaile bezala enpresa batekin gatazka

bat baduzu, baina ez baduzu ezer eskatu nahi, enpresaren jokaera txarra salatzea besterik ez, kexa bat aurkeztu dezakezu”. Hori bai, KIUB-eko arduradunaren berbetan, “kexaren atzean arau-hauste administratiboa edo delitua dagoela ikusten badut, erreklamatzeko eskubidea duela aipatzen diot interesatuari”.

## Kontsultak nagusi

KIUB-ek kontsultak jasotzen ditu batez ere. “Kexekin bezala, kasu batzuk kontsulta moduan hasten dira eta eskabide bihurtzen dira”, diosku Sacedak. KIUB-ek behar duen informazioa ematen dio eskatzaileari eta, Sacedaren ustez, “erreklamazioa nola egin dezaketen jakitea da gakoa. Izan ere, guk prozesuan parte hartu ahal izateko, lehendabizi erreklamazioa egin behar dute. Kontua da batzuetan ez dakitela erreklamazioa nola egin, enpresek zorabiatu egiten dituztela, eta abar. Oso ohikoa da enpresetara deitu, mila buelta eman

eta hona etortzerakoan oraindik erreklamazio zenbakirik ez jasotzea, ezinbestekoa dena”.

Sacedak dioenez, enpresa askok legea urratzen dute eta kontsumitzaileek ez dute horren inguruko jakintzarik. “Horregatik, askotan bulegotik bertatik deitzen diegu eta hemendik eskabideak egiten ditugunean legeak dioena argi eta garbi lagatzen dugu”, diosku. “Kontsumitzaileek euren ardurarekin betetzen dute, baina enpresek ez dute ondo jokatzen eta oztopo eta tranpa asko jartzen dituzte. Gehienetan arazoak konpontzen dira, baina, ez direnean konpontzen, eskabidea tramitatzen dugu. Edonola ere, kontsumitzaileak ahaldundutzea oso garrantzitsua da”.

Zentzu horretan, kontsumitzaileentzat interesgarriak izan daitezkeen hitzaldiak eskaintzeko asmoa du Sacedak. Adibidez, energia konpainiekin nola jokatu, fakturak nola irakurri, eta abar. Dena dela, aholku orokor batzuk eman dizkigu Sacedak.



David Saceda Dominguezek aitortu digunez, berarentzat ametsa da Eibarko KIUB-en lan egitea. EKHI BELAR

dak: “telefono bitartez ez kontratatu ezer, hobe da kontratuak idatziz jasotzea; antzeko gauza gertatzen da erreklamazioak egiteko orduan, hobe delako idatziz egitea (telefonoz eginez gero, intzidentzia irekitzeko eskatu berehala eta zenbakia ondo gorde); arazoak baldin badituzue, berehala jarri KIUB-ekin harremanetan; eta hemen ez ditugu aseguru-etxeen aurkako erreklamaziorik egiten, baina beste toki batzuetara bideratu dezakegu jendea”.

### **Eskabideak egin, kontsumitzaileak ahaldundu**

Kontsumitzaileek enprekin gaztakarik badute eta ezin badute euren kabuz konpondu, KIUB-i parte-hartzeko eskatu diezaiokete. Orduan, enpresari erreklamazioa bidaltzen diote eta irtenbide bat topatzen saiatzen dira. “Batzuetan, ostera, ez da irtenbiderik aurkitzen eta epaiketara edo arbitrajera jo behar dute. Gure eskumena ho-

## **>>> “Kontsumoaren inguruan egin izan dut lan beti eta, ondorioz, ondo ezagutzen ditut kontsumitzaileen eskaeren eta abarren inguruan dauden prozesu guztiak”**

rraino heltzen da eta hortik aurrera euren kabuz edo kontsumitzaile elkarteekin laguntzarekin jarraitu behar dute”, argitu digu KIUB-eko arduradunak.

KIUB-k bitartekari lanak egiten ditu: “ez dugu erreklamazioa zuzentzen, ez dugu enpresei derrigortzeko botererik”, diosku arduradunak, baina oso bidelagun garrantzitsua da kontsumitzaileen eskubideak bermatzeko bidean.

### **Zerbitzu arrakastatsua**

KIUB-en elkarriketa egiten egon ginen ordu eta erdian, telefonoak hainbatetan jo zuen eta pare bat lagun joan ziren ate joka, zerbi-

tzuak duen garrantziaren seinale. Aurten, adibidez, 311 kontsulta eta 19 eskaera jaso dituzte (otsailean ateak berriro ireki zituztenetik, 172 kontsulta eta 9 eskaera). KIUB-etik egiten diren erreklamazio gehienek arrakasta izaten dute, baina kasu bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta horren arabera da arrakasta.

KIUB-en arreta jaso nahi izanez gero, udaletxean dagoen bulegoa 09:00etatik 14:00etara dago zabalik astelehenetik barixakura, omickiub@eibar.eus helbidera idatzi, eibar.eus webgunean (KIUB-en atalean) kontsulta edo erreklamazioa egin edota 943 20 38 43 telefonora deitu daiteke.

# Ernaik 10. urteurrena ospatuko du bihar

Ernai Gazte Antolakundeak 10 urte bete zituen martxoaren 2an. Lizarran jaio zen mugimendua “milaka euskal gazterentzat askapen mugimenduan lehen pausoak emateko eskola izan da”, antolakundeak hamargarren urteurrenako ekitaldian adierazi zuenez eta, ekimenak duen babesa kontuan hartuta, pausoak ematen jarraituko du etorkizunean ere.

Elkarrizketaren bideoa gure YouTubean ikusgai:



**M**ugimendu nazionala izanik, Ernaik herrietan banatzen ditu taldeak eta, noski, Eibarren ere badago antolatuta. Julen Baroja eta Ainhoa Azkue dira herriko Ernaiko kide bi, eta eurekin berba egiteko aukera izango dugu antolakundearen inguruan.

Biak dira Ernaik urtetik urtera jaso duen babes berriaren erakusle eta, antolakunde sasoian sasoiara egokitu bada ere, nondik datorren ahazten ez duela erakusten dute euren berbek. “Ernai oso testuinguru zailean jaio zen, gazte antolakundearen aurkako erasoak maiztasun handiarekin ematen baitziren”, Barojaren berbetan. “Harrezkero, 10 urte daramatzagu borrokari tinko eusten eta oinarriak argi edukita. Beraz, abiapuntua kontuan hartuta, 10 urte hauen balorazio positiboa egiten dugu”.

Euskal gizartea asko aldatu da 10 urte hauetan, baina Azkuek dioenez, “Ernairen oinarrian dago testuinguru ezberdinetara moldatzea

## "10 urte daramatzagu borrokari tinko eusten eta oinarriak argi edukita"

eta, horren arabera, analisiak egitea, beharrak identifikatzea eta egokitzea”.

Gizartean, oster, bai atzeman dute nolabaiteko desmobilizazioa eta desatxikimendu politikoa. Euren ustez, sistema aldatzeko modurik ez dagoela zabaldu delako gertatu da hori. “Era berean, 78ko erregimenaren inguruko desatxikimendu handia dago eta hainbat krisi areagotu egin dira. Gaur egun, krisi anizkoitz baten aurrean kokatzen gara (krisi ekologikoa, zaintza krisia...) eta sistema heteropatriarkal, kapitalista, kolonial eta arra-

zista batean bizi gara. 10 urtetan testuingurua asko aldatu da, pandemia tarteko, baina oinarrian dauden krisi asko lehengo berdinak dira”, Azkueren berbetan.

### Gazte Frontea

Iaz Ernairen III. Kongresua egin zen eta hiru ardatz nagusi zehaztu zituzten bertan: hezkuntza, nazio-gintza eta azken urteetan atxikitu dituzten borrokak (euskararen aldekoa, adibidez). “Horrez gain, esan bezala, 78ko erregimenaren inguruko desatxikimendua handia denez, hori politizatzea nahiko genuke”, Barojak dioenez. “Pedagogia independentista kontzeptuarekin lotzen dugu hori eta jendeak gure borroka independentistaren alde batzea du helburu”.

Gero eta gizarte indibidualistago honetan, Ernaik “kolektibizazioan” sinesten du, eta horretarako antolatzea eta artikulatzea da bere estrategia. Antolakundearen egiturari erreparatuta, Euskal Herri mailako mugimendua da eta herri





Eibarko Ernaiko Julen Baroja eta Ainhoa Azkue. EKHI BELAR

ezberdinetan taldeak ditu. Eibarko Ernaik, adibidez, astero egiten ditu bilerak (beharraren arabera). “Bestetik, eskualdeko beste taldeekin etengabeko komunikazioa eta elkarlana dugu, eta maila nazionalen ere saretzea ematen da”, Azkuek dioenez. “Ernaik herriko taldeen apustua egiten du, herriko problematikak herrietako lagunek hobeto ezagutzen, identifikatzen eta lantzen dituztelako”, gehitzen du.

Barojak azpimarratzen duenez, “gure lanketaren zati handi bat kanpora begira egiten dugu. Hau da, herriko mugimendu ezberdinetan hartzen dugu parte modu aktiboan. Herriaren onura bilatu eta bertan eragin nahi dugun neurrian, bertako eragileekin lan egitea ezinbestekoa da. Borroka bateratua denez, denon artean eraman behar dugu aurrera. Iazko kongresuaren ondoren, Gazte Frontea deritzonaren alde egin dugu apustua. Hau da, jendarteren bizitza hobetzeko ‘gazte olatua’

## "Bizi-proiektu ezberdinak eraiki ahal direla jarri nahi dugu mahai gainean, sistema aldatu daitekeela azaleratzea"



sortu nahi dugu, eta horregatik sortzen ditugu aliantzak Eibarko beste eragile batzuekin”.

### Ospakizunak Eibarren

Biharko “egun politikoa” prestatu du Eibarko Ernaik. “Bizi-proiektu ezberdinak eraiki ahal direla jarri nahi dugu mahai gainean, sistema aldatu daitekeela azaleratzea”, Azkuek azaldu digunez. Horren harira, edukia eta aisialdia uztartuko dituen ekitaldia egingo da 13:00etan, Errebalen, eta ordu erdi inguru iraungo du.

Trikipoteoa egingo da ondoren eta 14:30ean bazkaria egingo dute toki berean. 17:30ean jolasak egingo dituzte Untzagan, eta gero, 19:00etan, karropoteoa. “Kanpora begira prestatu dugun egitaraua da. 10 urte betetzea ospatzeko moduko urteurrena dela uste dugu eta helburuetako bat ondo pasatzea da”, Barojaren ustez. “Beraz, ahalik eta jende gehien hurbiltzea espero dugu eta Ernai Eibarren borrokan tinko dagoela ikustea”.



## Barrea terapia bihurtzen denean...

Joan den eguenean barreterapia-saioa antolatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Illunabarrian programaren barruan. Manex Beristain barreterapeutak gidatu zuen saioa dozena bat lagunez osatutako taldearentzat, eta "jolasaren bitartez alaitasunarekin eta samurtasunarekin konektatu zuten", aditu azpeitiarraren berbetan. Batek baino gehiagok aitortu zuen "barruak astindu" zizkiola saioak, eta barre egiteaz gainera, "beste emozio batzuk" ere azaleratu zitzaizkiola. Errepikatze gogoz amaitu zuten saioa.

### 25ean familientzat tailerra

Datorren martxoaren 25ean, zapatua, familiek izango dute horretarako aukera, eurentzat antolatuko da-eta barreterapia-saioa, hori ere Beristainen eskutik. 6 eta 12 urte bitarteko haurrei eta haien gurasoei zuzenduta dago eta izenematea gaur bertan zabaldu da. Telefonoz deituta (943200918) edo mezua bidalita (elkartea@eta-kitto.eus) eman daiteke izena eta 5 euro balio du helduentzat eta 3 euro umeentzat (doan Gurasoak Berbetan programakoentzat eta bazkideentzat).



## America Vargasek irabazi du Euskeraz primeran! zozketa

Aurreko astean neguko merkealdien azokan izan zen hiru eguez Euskeraz primeran! ekimena, erosketak egiterako orduan ere herritarrrak euskaraz egitera animatzeko. ...eta kitto!-ren mahaira herritar ugari hurbildu zen, dinamika erraz batean parte hartzera, eta, Euskeraz primeran! boltsa jasotzeaz gain, EMGIk emandako 100 euroko erosketa-txartelaren zozketan sartu ziren. America Vargas izan zen irabazlea eta azokan bertan gastatu zuen txartela.

## Berbalagunak Balmasedara joango dira bihar egunpasa

La Encartada fabrika-museoa bisitatuko dute lehenik eta behin. 1892an sortu zen eta 100 urtez egon zen martxan. Fabrikan artilea lantzen zen eta hainbat artikulua egiten ziren, besteak beste txapelak, mantak, oihalak, eskularruak edota biserak. Fabrika bisitatu eta gero, berbalagunek Balmaseda ezagutzeko aukera izango dute, denok elkarrekin bazkaldu aurretik.

## Urteko Batzarra egingo du ...eta kitto!-k martxoaren 21ean



Martxoaren 21erako deitu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusia elkartearen egoitzan (Urkizu 11, solairuartea). Lehenengo deialdia 19:00etan izango da; bazkideen erdia baino gutxiago bertaraten bada, ordu erdi geroago egingo da Batzarra, hau da, 19:30ean. Bazkide guztiak parte hartzera gonbidatuta daude, eta gai-zerrenda honako hau izango da: **2022ko gestio-balantzea; 2023rako egitasmoak, bazkide-kuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta iradokizunak, eta zuzendaritza berriaren hautaketa eta funtzionamendua.** Bilera amaitzean piskolabisa egingo da

# “Tontorraren bila abiatuta ere, badakigu tontor hori behean dagoela beti”

ALEX TXIKON • Alpinista



Eibarko Klub Deportiboak aurten prestatutako Mendi Jardunaldietako lehen ekitaldiko protagonista izan genuen. Euskal Herrira etorri berri, Coliseon eskainitako proiektzioan Manaslun bititakoa kontatu zigun. Baina, lortutako gailurrari baino, mendiak eskaintzen dionaren inguruan jardun zuen mendizaleak. Uneaz gozatzeko aukera izan zutenek amaierara arte jarraitu zuten ia bi orduz luzatu zen "hitzaldi" arina.

**A**lex Txikon urtarrilaren 6an iritsi zen Himalaian dagoen Manasluko gailurrera. Bere bigarren zortzimilakoa izan da neguko espedizio batean, 2016an Karakorumen dagoen Nanga Parbat ere igo baitzuen. Araudi berriaren arabera, gainera, berarena da Manaslura neguan egin den lehenengo igoera. Sei xerpa izan zituen bidaikide balentria horretan: Tengen, Pasang Nurbu, Mingtemba, Chepal, Pamba Tasi eta Gyalu. Azken horiek, oxigenoa denbora guztian erabili ez arren, gainean zeramaten. Txikon baino Alex izaten ahalegintzen den mendizaleak Simone Moro italiarra igo barik geratzearren damua ere badauka. Aukera izan genuen Coliseon berarekin egoteko proiektzioaren aurretik.

## Zer da Manaslu zuretzat?

Azken hiru urtetako mendi kuttuna, hiru espedizio egitea ahalbidetu didana. Hiru urtetako pentsamendu eta energia guztia bertan kontzentratu dut. Baina ez mendia bakarrik, baita bertako jendearen aberastasuna eskaini didana ere. Zenbat ikasi dudan eurekin! Zoragarriak dira!

## Zertan datza aurtengo espedizioaren arrakasta? Zertan asmatu duzue: gako klima izan da, azkar egitea?

Hamabi denboralditan, 6.000ko bi, 7.000ko beste bi eta 8.000ko Nanga Parbat eta Manaslu egin ditut. Emaitzak eta datuak hor daude. Sekreturik ez dago; hori bai, pozik tontorra egitearren. Oraingoan ere ez





## “Psikologikoki, urruntzen zoazelako, igoera gogorragoa egiten bada ere, fisikoki jaitsierak eskatzen dizu askoz gehiago”



dugu ezer desberdinik egin; planetak horrela alineatu ziren, besterik ez. Betiko tokian egon bagara ere, zorte pittin bat ere izango genuen.

### **2016an igotako Nanga Parbat-ekoarekin alderatuta, izango ziren desberdintasunak, ezta?**

Nangakoan italiar bi eta pakistandar bat izan nituen lagun; oraingoan sei nepaldarrek igo zuten nirekin. Makalukoan babes gehiago sentitu dut, segurtasun puntu hori. Baina gehiago sufritu dut. Gaur egungo Alex ez da ordukoa. Konparatu ere ezin dira: mendi desberdinak dira guztiz. Hala ere, horrelakoetan sentimenduak albo batera lagatzen dituzu eta soldadu bihurtu; zakarrago, hotzago jokatzeko duzu. Bizirik irteera beste helbururik ez duzu, zero azpitik 40 gradutan ez dago komeriarik.

### **Baina, 12 espediziotik bi gailur. Portzentajearekin pozik zaude?**

Oso pozik. Ezer ez nuke aldatuko. Neguko bi zortzimilako, honako hau gainera era integralean, horrelako lehenengoa izango dena... Aldez aurretik poloniarrek egin bazuten ere, eurena bestelakoa da, azaroan hasi baitzuten.

### **Neguko espedizioekin jarraitzeko asmorik bai? Nora hurrengoan?**

Gogoak sartu zaizkit dagoeneko berriro ere bueltatzeko. 41 urte ditut, teknikoki eta taktikoki inoiz baino hobeto nago, “kurtidoago” esaten dena. Egia bada ere hankak leher eginda ditudala oraindik. Hori bai, zein mendira ez dizut esango: goizegi da oraindik hori zehazteko.

### **Igotzea ala jaitea: zer da zailagoa horrelakoetan, zer arriskutsuagoa?**

Psikologikoki, igotzea da gogorragoa, urruntzen zoazelako. Benetako tontorra behean dagoelako, eta hori kudeatzen jakin behar duzulako. Beheratzea, bestalde, fisiko aldetik da gogorragoa. Jaitsiera dena emanik abiatzen duzu, zelan zauden ere ondo ez dakizula. Banaibil liburua prestatzen gai horiei buruz.

### **Askotan ipini duzu bizitza arriskuan? Zenbat muturreko esperientzia bizi izan dituzu? Baduzu berezirik?**

Momentu txarrenak izaten dira berezienak, hor zure bertsiorik onena ateratzera behartuta zaudelako. Besteen, aldamenekoen sufrimenduak, batez ere zu ondo zaudenean, asko eragiten dizu... Halakoetan pertsona zara gehiago, besteen bizitza jokoan ikusitakoan, humanoagoak egiten gara. Orain ere, Nepaletik buel-

tan, beste 15 egun eman ditut Pakistanen, hildako baten gorpua jaitsi dugu... Enpatikoago jokatzen duzu egoera horietan.

### **Prestaketan zer da erabakigarriena? Egokitze-prozesua? Atsedean hartzea?**

Biak dira garrantzitsuak. Hemendik irteterako, hegazkinera buf-a jantzita igotzen naiz. Hara heldu aurretik, edozein katarro hartzen duzula, ez dakizu zenbat kostatzen den sendatzea. Eztarria ez izorratzea primordia- la, lehentasunezkoa da. Altueran sendatzea zailagoa delako. Aurten egokitzen ari garen tontorrean egin dugu, bi hilabetetan egin dugulako gutzia. 5.000-6.000ko kotan geratu ginen, eta nahikoa izan zaigu. Zergatik? Ez dagoelako ezer idatzita mendian asmatzeari buruz.

### **Zenbaterainoko hotza izan duzue?**

Gogorrena gaueko 01:00etik goizeko 10:30era artekoa egin zitzaigun, oso gaizki pasatu genuelako. 40 gradutik beherako tenperaturarekin eta haizea gogor jotzen. Sentsazio termikoa, jakina, kaskarragoa oraindik; baina, hortzak estutu, eta aurrera!

### **Aldaketa klimatikoa nabaritu duzue azken aldiko espedizioetan?**

Gutziz. Azken hiru urteotakoa ez da normala izan. Lehenengoan urtarrila ona hasi zen, baina gero gutzia izan zen elurra. Bigarrenean, zer esanik ez, elurra eguneroko; ezer ezin egin! Aurten, kontrara, udazkenean botatu zuen elurra eta, gero, hilabete osoa izan dugu laino barik. Nik mendian hogei urtetik gora badaramatzat ere, azken hamar urtetan asko nabaritu dut aldaketa klimatiko hori.

### **Xerpen lanaren errekonozimenduan, nabari daiteke aurrerapausorik?**

Nik beti aipatu izan ditut euren izenak. K-2rako 2017ko espedizioan ere hiru pakistandar izan nituen lagun, eta primeran, inolako arazo barik! Badirudi batzuk lotsatu egiten direla horrelako igoerak eurekin konpartitzeaz. Ba, ni harro nago Makalura igotzeko izan ditudan sei kideekin. Damutzeko izan dudana bakarrik Simone Moro azkenean behean geratzea izan zen.

### **Mendizaleen arteko errespetua zein mailatan ikusten duzu?**

Nire aurrekoen lana gorai patzen dut beti: Iñurrategi, Oiarzabal, Zabalza, Vallejo, Pasaban... Askok ikasi dudalako eurei esker, euren urratsei jarraitu diegu-eta. Batzuk gustokoagoak izango dituzu, horiekin geratu



**“Txikonen aurrean, Alexen alde gustatzen zait egitea. Gailurraz gain, bertako jendeak eskaini didanarekin geratzen naiz”**



Alex Txikon 2018an Everesteko Pumorira egindako espedizioan.

eta aurrera... Hori bai, mende hasieran bizi izan genuen himalayismorik politena, aberatsena, eta ez dut uste 2003. urte bueltakoetara itzuliko garenik, orain inpersonalagoa delako guztia. Gizartea ere eskatu egin dela esango nuke, eta gauza bera gertatzen da mendiarekin. Espedizio kontuetan ere, lehen mende-baldekoak eramaten genuen bezala, orain nepalдарrek eta pakistandarrek hartu dute ardura hori, eta ez dira gutxi kritikatzeko dituztenak: guk egindakoaren ondorio besterik ez direnean. Kritikatzeari laga eta, energiak hor galdu beharrean, zentzudunagoa izan zaitezke: mendiko kultura handiagoa baduzu, probestu hori. Nik minutu bat ere ez dut kritikatzeko gastatzeko, konstrutiboagoak izan behar dugu, kakaz bete barik gure barruak.

### **Zer da zailena espedizioen erronkei heltzeko uanean? Dirua lortzea, baimenak?**

Diru-kontuena gogorrena egiten zait, pisu astunena, prozesu gorabeheratsua ere badelako. Gaur egun estrategikoa izan behar zara, jendea zuri begira dagoelako, punta zorrotzagoarekin gainera. Nik argi daukat Alex dagoela alde batetik, eta Alex Txikon bestetik. Eta ni lehenengoarekin geratzen naiz. Pertsona ez bazara, bizitza kaosa ere bihurtu daitekeelako.

### **Zer aldatuko zenuke, bada, mendian?**

Ezer ere ez, talibana ez naizelako. Belaunaldi bakoitzari asko kostatzen zaio besteek egiten dutena bere ere egitea. Zenbatetan entzuten dugun “gure garaiak” besteenak gutxitzeko afanean. Ba nik txapela kenduko nuke gazteenek egiten dihardutenarekin.

### **Zure hurrengo erronka?**

Etorri berri naiz, barren! Euskal Herrian hanka bat ipintzea besterik ez dut egin-eta! Nepal, Pakistan, Austria, Andaluzia... geratu barik ibili naiz. Atzo bertan heldu nintzen hona eta bihar banoa. Katu-oinak ipini eta eskalatzen ibiltzea izan nuen atzoko erronka; ahaztu barik azaroaren 18tik hankak leher eginda ditudala. Eskalada egin, edozein paretaren aurrean jarri... horrelakoak izango dira nire hurrengo erronkak.

Elkarrizketaren bideoa gure YouTubean ikusgai:





## Txirrindularitzazaleen elkarretaratzeak lasterketak antolatzen dauden arazoan konponketa eskatu zuten

Eibarko Txirrindularitza Elkarteak egindako deialdiari erantzunez, Gipuzkoa guztitik etorritako txirrindularitzaren munduko ordezkariak zabala izan zen domekan Untzaga plazan, junior mailako Udaberri Saria hastekotan zen toki berean lasterketa hori eta beste batzuk bertan behera geratu direlako protesta gisa. Lotura lanak egiteko motorren aseguruak ordaintzeko ezintasunak ekarri du egoera hau eta, lasterketa-antolatzaileek diotenez, “falta zen azken errematea izan daiteke”. Domekako mobilizazioan elkarte ezberdinetako kideak eta bizikletazaleak bildu ziren egoera



hori deitoratu eta ezagutarazteko asmoz. Santi Osoro Gipuzkoako Federazioko presidentearen hitzetan, “txirrindularitza kate bat da eta ezin da hautsi. Ez dago goi

mailako txirrindularitarik behean katea hausten bada”. Hori dela-eta, eskuduntza duten agintariei egin zaie eskaera arazoari konponbidea ezartzeko lehenbailehen.



## Eibar Igerixan bikain Arabako Openean

Paula Calvo gure herriko klubaren ordezkaria parte hartu zuen proba guztietan nagusitu zen: bizkar erako 50 eta 100 metrotan, eta libreko 100 eta 200ekoetan. Gasteizen parte hartu zuten taldekideak ere ez ziren atzean geratu: Asier Gomez nagusi izan zen absolutu mailako 200 libretan, Maddi Maguregi bigarren sailkatu zen 800 libretan eta Malen Beobide hirugarren sailkatu zen bra-

za modalitateko 50 metrotan. Han izan ziren baita Maialen Gomez eta Nora Guinea ere.

Bestalde, Azpeitian jokaturako Alebin mailako Ligaren bosgarren jardunaldian, Eibar Igerixaneko sei mutil eta neska bakarra izan ziren parte hartzen (**argazkian**). Jon Guinea laugarren izan zen 200 brazan eta Ane Larrañaga bosgarren 100 libretan.

## Mendeurrenari begirako Klub Deportiboaren batzar nagusia hilaren 16an

Datorren asteko eguenean, hilaren 16an, Eibarko Klub Deportiboaren urteko batzar nagusia egingo da klubaren lokaletan, 19:00etan hasita. Gai-zerrendak zazpi puntu izango ditu eta horko seigarrenak, Ehungarrenaren ingurukoak, klubak 2024ko urtarrilaren 30ean beteko dituen 100 urteak izango ditu protagonista. Ohiko bestelako gaiekin batera, kuoten igoera ere proposatuko da eta, azkenik, klubaren euskarzko izenaren inguruko behin betiko erabakia hartuko da. Azken arlo horretan bi aukera daude, adituei eskatutako iritzia da bat eta Zuzendaritza Batzordearena bestea.

## Eibar Rugby Taldeko lehen bi taldeek garaipen handiak eskuratu zituzten

Hainbat astetako atsedenaldia atzean lagata, asteburu honetan abiatu zen berriro emakumezkoen Ohorezko Mailako errugbi liga, eta Patricia Guntinek prestatzen duen taldeak ondo erakutsi zuen denboraldi hasieratik honaino eman duen aurrerapausua. Horrela, Eibar Rugby Taldeak sailkapenean aurretik duen Crealia El Salvadorri 40-12 irabazi zion Unben jokatu-tako 11. jardunaldiko partiduan. Eibartarren entseguak Aumuak (3. minutuan), Poulinek (29.ean), Aumuak berriro (40.ean), Mayok (59.ean), Aspinallek (79.ean) eta Sambuk (80.etik pasatuta, luzapenean) egin zituzten. Ikusi daitekeenez, eta eibartarrek erakutsitako



joko orekatuaren seinale, Eibar Rugbyk hiru entsegu gauzatu zituen lehen zatian eta beste hiru bigarrenengan. Lehenengo zatiaren amaieran 21-7koa erakusten zuen Unbeko markagailuak.

Emaitza horrekin, eta jasotako bonus puntuari esker, eibartarrek sailkapeneko laugarren postura igo dira, A Coruña CRATEk baino puntu bat gehiagorekin eta seigarren geratu den Sant Cugat baino bi gehiagorekin. Ligako lehen fasea amaitzeko hiru jardunaldi falta dira eta domeka eguerdian

eibartarrek Pozuelora joango dira, Valle de las Cañas zelaian bertako Olympicori bisita egiteko.

Euskal Herriko Ohorezko Mailan jokatzen duen gizonezkoen lehen taldeak, bestalde, Sarako Izarrari irabazi zion 27-0 aurreko asteburuan Unben eta hirugarren da sailkapenean. Hori bai, asteburu honetan ez du lan errazik izango, Betsaide Elorrio sailkapeneko liderrari egin behar baitio bisita zapatu arratsaldean, 16:30etik aurrera Bizkaiko herriko San Roken jokatu den neurketan.

## Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa bihar hasiko da Asola Berrin

Guztira 12 jardunaldi izango dituen txapelketa horretako 52. edizioak oraingoan gure herriko bolatokia

izango du abiapuntu. Ondoren Bergarako San Joxepe, Azkoitiko Floreaga, Elgoibarko San Pedro,

Soraluzeko San Andres, Leintz-Gatzaga, Soraluzeko Ezoz, Aretxabaleta, Elgeta, Lastur eta Elgoibarko San Miguel joango dira asteburuero lekukoa hartzen, Azpeitiko Garmendipen ekainaren 10ean jokatu den azken jardunaldira arte. Ohikoa denez, egun horretan, parrekoak erabakitzeaz gain, Lehendakari Saria ere izango da jokoan. Tiraldi guztiak arratsaldetik 17:00etan hasiko dira, Azpeitiko azkena kenduta: omenduekin egingo den bazkaria ere tartean egonda, egun horretakoa, betiko lez, 11:00etan hasiko da. Edozer gertatuta ere, Elgetakoa izango da ordezko bolatokia.



Eibarko bolatokitiko hainbat ordezkarik hartuko du parte txapelketa berrian ere.

## Azkargorta-Conde senior mailako bikoteak Udaberri Txapelketako final-laurdenetako partidua du gaur arratsaldean Astelenan

Eibarko bikoteak txapelketa birkaina dihardu egiten txapelketa horretan eta, aurreko barixakuan eszenategi berean Oñatiko ordezkari 22-12 irabazi ondoren, oraingoan Aloña Mendi 2-koen aurkakoa jokatuko dute. Udaberriko final-laurdenetako izango da baita kadeteen mailako Azpili-kueta-Gisasola Deporrekoko bikoteak Tolosako Elola-Perurenaren aurka jokatuko duena ere; aipatutako bikote horrek garaipen ezin argiagoa eskuratu zuen aurreko jardunaldian Elgoibarren bertako bikoteari 5-22 irabazita. Eskuz binakako Gipuzkoako Txapelketan, bestalde, errendimendu mailako bigarren faseko azken jardunaldira iritsi dira, eta



Azkargorta eta Conde.

hor infantil mailako gure herriko bi bikotek final-laurdenetara heltzeko puntuen bila irtengo dira Astelenara: Amillategi eta Varonak Tolosako Gabarain-Lasa bikotea izango dute aurkari, eta Gil eta Del Reyk Urretxuko Gabarain-Mendizabal. Jaialdia, ohikoari jarraituz, arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

Bestalde, Eibarko II. Paleta Goma Txapelketan, aste honetako martitzenean eta eguenean jokatutako partidutik aparte, zapatu goizean 09:00etan hasiko den jaialdian beste hiru partidujokatuko dira: Ibarbia-Urain vs Gisasola II-Gaztelu, Ivan-Sastre vs Arizaga-Baroja eta Zabala-Txirloi vs Mendibe-Conde.

## MendiTour-eko pelikulak protagonista datorren asteko Mendi Jardunaldietan

Martitzenean eta eguaztenean, arratsaldeko 18:30ean hasita, Coliseok hartuko ditu Mendi Jardunaldien egitarauaren barruan kokaturiko bi proiektzio horiek. Saio bakoitzeko prezioa 5 eurokoa da eta, Coliseoko leihatiletik kanpo, Kutxabank-en ere lortu daitezke. Lehen egunean, hilaren 14an, 22 minutuko "Creation Theory", 30 minutuko "Spindrift" eta 59ko "Everest - Sea to Summit" eskainiko dituzte. Lehenengoak Islandiako fiordoetan dago kokatuta, bertara joandako surfleri batek, snowboarder batek eta musikari batek sortutako agertokian. Bigarrenak Barry Blanchard alpinista izango du ardatz, "garaipen, tragedia eta erredentzioen ibilbidean, mendiak zelan salbatu zuen erakusteko". Hirugarrena mendiko


zinemaren historian izan den filmarik sarituenetakoa da eta Tim Mcartney-Snape alpinista australiarrek Everest gailurrera oxigenorik gabe 1984an egindako igoera kontatzen du.

Hilaren 15eko proiektzioak, bestalde, honakoak izango dira: 3 minutuko "Iretargi", 19 minutuko "Egoland", 30eko "Into the Ice" eta 46 minutuko "Doo Sar". Lehenengoak Felipe Eizagirrek, Yhabrilek eta Janire Etxabek gorpuztutako sekuentzia artistikoa dakarkigu. Bigarrenak The Great Troll mendiaren gailurrera bidean iritsi ezinik gelditu ziren Marek Molek eta Bruno Grassi alpinisten arteko eztabaida erakutsiko digu, "egia kontatu ala ez, piztu zena". Hirugarrena Hego Amerikako muturrean dagoen ia



esploratu gabeko Darwin mendikatearen inguruko da; zazpi lagun joango dira bertara, klima-aldaketaren ondorioak aztertzeko. Laugarrenak, azkenik, Andrzej Bargie eta Jedrek Baranowskik Karakorum mendigunean bi seimilako eskalatzeko eta eskialtzeko duten asmoa gerturatuko digu.





Aurten ere halako irudiaz gozatzeko itxaropenarekin. RAMON BEITIA

Egitarau osoa  
deskargatzeko:



**martxoak 10 (barixakua)**



**"Lagun beltz asko"**

Ados Teatroa & Bidebitarte (Gipuzkoa)  
Garbi Losada, Jose Antonio Vitoria  
Tragikomedia / 90'

**Antzezleak:** RAMON IBARRA,  
ASIER HORMAZA, ASIER SOTA  
**Zuzendaria:** GARBÍ LOSADA

Komedia beltza, umorez islatzen duena egoera sozial ahulagokoei edo ezezagunei diegun beldurra edo arbuioa. Guztiok isiltzen saiatzen garen beldur hori, guztiok baitugu "lagun beltz asko". Ixtear dagoen taberna batean hasten da.

**Coliseo (19:00)**

**martxoak 11 (zapatua)**



**"Paūra"**

Compañía Lucas Escobedo  
Lucas Escobedo  
Zirkoa / 75'

**Antzezleak:** LUCAS ESCOBEDO,  
RAQUEL MOLANO, ALFONSO RODRIGUEZ  
**Zuzendaria:** LUCAS ESCOBEDO

Publiko guztietarako zirko eta antzerkia. Umorez betetako ikuskizuna, zuzeneko musikarekin. Pailazoaren hizkuntzaren bidez beldurraz hitz egiten du, algaraz eta poesiaz beteoa. Emozio ona ez bada ere, martxan jartzen gaitu askotan.

**Coliseo (19:00)**

**martxoak 17 (barixakua)**



**"El avaro"**

Atalaya Teatro (Sevilla)  
Molière

Komedia / 105'

**Antzezleak:** CARMEN GALLARDO,  
SELU FERNANDEZ, MARIA SANZ  
**Zuzendaria:** RICARDO INIESTA

Dirutza lapurtuko ote dioten izututa bizí den Harpagón aberats eta zekena abiapuntu hartuta, Molièreren eskutik, gizakiaren alderik berekiarena gogorarazten dizkigu, baita diruak eta botereak eragiten dituzten klase-desberdintasunak.

**Coliseo (19:00)**

**martxoak 18 (zapatua)**



**"Hobe ixilik!"**

Txalo Produksioak (Gipuzkoa)  
Salomé Lefouch

Komedia / 80'

**Antzezleak:** ITZIAR ITUÑO,  
RAMON AGIRRE

**Zuzendaria:** BEGOÑA BILBAO

Elkarri kontu-kontari eta,aldi berean, kontrakoa esaten. Egun, edozer esanda ere, eztabaidarako gai bihurtzen baita. Areago, ustez adierazpen askatasuna nagusi den guneetan, dagoeneko zenbait gauza ezin dira alpatu ere egin.

**Coliseo (19:00)**

# “Burutik pasatzen zaizkigun gauza guztiak esatearen aldekoak garela dirudi”

RAMON AGIRRE • Aktorea



Itziar Ituño eta Ramon Agirre ezin isilduta ibiliko dira hilaren 18an, 19:00etan, Coliseo antzokian eskainiko duten antzezlanean. ‘Hobe ixilik’ antzezlanaren ekarriko du bikoteak, gai arinen eta potoloen inguruan eztabaidatuz. Umorea lagun, eguneroko kontuak eta galdera existentzialak taularatuko dituzte.

**A**ntzezteaz gain, Ramon Agirrek lana itzuli egin du, ‘Fallait pas le dire!’ (Salome Lelouch) obran oinarritzen baita. Lana gurera ekarri eta urtarrilean egin zuten estreinua Donostian. Aukera ederra izango da euskal aktore handienetako bi zuzenean ikusteko.

## Batzuetan hobe da isilik egotea?

Beno, hori da hain zuzen obraren ardatza. Bi pertsonaiek gai horretan egiten dute talka. Bata, nik antzezten dudana, filtroaren eta esan behar duguna alde aurretik pentsatzearen aldekoa da. Bestea, ostera, Itziarren pertsonaia, filtrorik gabe hitz egitearen aldekoa da, burutik etortzen zaion oro ahora etortzen zaion moduan botatzekoa. Orduan, gaia zein den asko axola gabe, arina edo transzendental izan, gure ikuspegiengatik, talka egiten dugu elkarri hitz egiten diogunean.

**Sare sozialen sasoian zaila dirudi isilik egotea, edo nork du bere iritzia emateko premia edozein gairen inguruan.**

Bai, egia da, badirudi filtroa ez dagoela oso modan. Burutik pasatzen zaizun guztia esatearen aldekoak garela dirudi gaur egun.

**Salome Lelouchen lana itzuli eta moldatu duzu, eta hasieratik zenuen argi emakumearen papera Itziar Ituñok egin behar zuela. Zergatik?**

Itziarrekin hainbatetan egin dut lan (antzerkian ‘Gronholm Metodoa’ obrarekin, adibidez) eta antzezlari honetarako aproposa ikusten nuen, ez delako aktore bat berez jendeak komediarekin lotzen duena, drama gehiago landu duelako. Seguru nengoen pertsonaiekin bat etorriko zela eta publikoa harritu egingo zela, eta lortu dugula uste dut. Bestetik, oso harreman ona eduki dugu betidanik eta gozamina da berarekin lan egitea.

**Dantza egiten ere ikusi zaituztegu, ezta?**

Bai, hori guk erantsi diogu jatorrizko obrari. Jatorrizkoa Parisen ikusi nuen eta emakumeak dantza txiki bat egiten zuen, baina ez askorik, eta hortik abiatuta dantza obraren beste ardatz bat moduan hartu dugu. Horrela, bikote hau, eztabaidak saihesteko, dantzan hasten da. Gainera, Itziarri eta niri asko gustatzen zaigu dantza egitea eta publikoak asko eskertzen ditu momentu horiek.

**Antzezlana ezberdintasun asko ditu jatorrizko obrarekin alderatuz gero?**

Lana Euskal Herriratu egin dugu. Pixkanaka gauzak





egokitzen eta aldatzen joan ginen, eta orain, jatorrizkoa ikusten dudan bakoitzean, oso aldentuta ikusten dut. Adibidez, pertsonaiei ofizioak aldatu genizkien. Izan ere, jatorrizkoan emakumeak gizonarekiko dependentzia du eta abiapuntu moduan ez zitzaigun gustatzen. Horrek gauza asko aldatzen ditu. Bestetik, jatorrizkoa Parisen kokatzen da eta gurea Euskal Herrian. Gure antza gehiago duen bikotea sortu dugu. Lana hemengo egile batek hemen idatzia dagoela dirudi, hemengo bikote batean pentsatuta.

**Telebistako eta zineko ekoizpen handietan egin duzue lan eta, orain, antzerkian zabiltzate herriz herri. Zer ematen dizue antzerkiak?**

Beti ibili naiz saltoka. Aspaldi ibili naiz Madril inguruan telesailak eta pelikulak egiten, handiak eta txikiak, eta askotan tokatu zait egun baten ekoizpen handi batean ibiltzea eta hurrengoan herri txiki batean antzerki emanaldia eskaintzen. Niretzat ohikoa da hori eta Itziar ere uste dut gustora ibiltzen dela ekoizpen handietan zein txikietan. Gainera, bera oso euskaltzalea da eta asko gustatzen zaio Euskal Herrian lan egitea. Bestetik, mota eta tamaina ezberdinetako lanetan ibiltzeak badu grazia. Dena dela, azken neurrian, gure lana bera da.

**“Euskaltzaleak gara eta ez da gauza bera euskaraz edo beste hizkuntza batean lan egitea. Antzerkia egitea bakarrik baino zerbait handiagoa egiten ari garela iruditzen zaigu”**

**Euskararen gaiari helduta, euskarazko antzezlana eskaintzen duzue. Zuen hizkuntzan aritzeak badu zerbait berezia?**

Bai, noski. Euskaltzaleak gara eta ez da gauza bera euskaraz edo beste hizkuntza batean lan egitea. Antzerkia egitea bakarrik baino zerbait handiagoa egiten ari garela iruditzen zaigu. Jendea entretenitzeaz gain, ekarpen bat egiten ari garen sentsazioa dugu. Ekarpen xumea, baina bada zerbait.



## Su Ta Gar eta Fangoria arituko dira sanjuanetan

Martitzenean eman zituzten ezagutzera aurten San Juan jaietarako Udalak antolatu dituen kontzertu nagusiak Jon Iraola alkateak eta Patxi Lejardi Kultura eta Jaietako zinegotziak, Jose Luis Gonzalez “Poxpolo” teknikariarekin batera: Su Ta Gar talde eibartarrak eta Fangoria eskainiko dituzte, ekainaren 16an eta 17an. Ekainaren 16ko (barixakua) kontzertua Su Ta Garrek emango du, 22:00etatik aurrera. Azaldutakoaren araber, Eibarko taldeak estudioan grabatutako “Alarma” bere hamabigarren diskoa aurkeztuko du Untzaga plazan. Antolatzaileen berbetan, “35 urteko ibilbidean, hamabi aldiz jo du bere herrian, eta hainbat eszenatoki zapaldu ditu. Besteak beste, Ipuruako kiroldedia, Coliseo antzokia, Amaña auzoa edo Untzaga plaza. Ibilbide luzea izan arren, Su Ta Gar publikoa erakartzen jarraitzen duen taldea da, eta oraingoan bere azken disko hamaika kantuak aurkeztuko ditu. Hala, beste behin, aukera izango dugu Aitor Gorosabelek, Xabi Bastidak, Galder Arrillagak eta Igor Diezek osatzen duten Su Ta Gar Eibarren zuzenean entzuteko”.

Eta hurrengo egunean, ekainaren 17an (zapatua), Alaska eta Nacho Canut buru dituen Fangoria taldearen kontzertua egingo da Untzaga plazan, 23:00etatik aurrera. Fangoria, 1989an sortutako taldeak estudioko 14 bilduma eta 71 single eta EP ditu. Bi kontzertu hauek aurtengo sanjoanetako musika-eskaintza nagusia osatzen badute ere, Jon Iraolak eta Patxi Lejardik iragarri dute jaietako musika-programazioan beste emanaldi batzuk ere izango direla, eta Eibarko jaien programazioa itxi ahala ezagutaraziko direla. Aurkezpenean adierazitakoaren araber, Su Ta Gar eta Fangoria Eibarren egoteak “ahalegin ekonomik handia eskatzen du, baina seguru gaude merezi duela, eta espero dugu Eibarko eta beste herri batzuetako jendea etortzea”.



## Julenek VillaSoundBilbaon emango duen kontzertura joateko autobusa

Julen Leturiondo gazte eibartarra aukeratu dute VillaSoundBilbao musika programan parte hartzeko eta martxoaren 23an kontzertua emango du Bilboko Bilborock aretoan. Programaren hurrengo fasera pasatzeko Julenek publikoaren laguntza behar duenez, lagun eta jarraitzaileek autobusa antolatu dute bertaratzeko. Kontzertuaren egunean 19:00etan irtengo da Ego Gaineko geltokitik. Ermuan Kaltxangon geraldia egin ostean, Bilborockera abiatuko da. Emanaldia amaitu bezain pronto autobusa bueltan etorriko da. Izena emateko bi aukera daude: Juleni Instagram birtartez idaztea (@its.julen) edo, bestela, Beleko, Guridi edo Buenos Aires tabernetan dauden orrietan izena ematea (domeka da azken eguna).

## Hamarretako osasuntsuak prestatzen ikasteko tailerra



Hamarretako osasuntsu, goxo eta bidezkoak lantzeko tailerra antolatu dute Egoaizia eta Proyde-Proega erakundeek, Udalak Lankidetzarako ematen dituen dirulaguntzei esker. Ahalik eta jende gehien parte hartu ahal izateko, tailerra online izango

da, martitzenean, 18.00etatik 20.00etara (euskaraz izango da). Izena emateko, antolatzaileen sare sozialetan aurkituko duzun formularioa bete behar da. Bestalde, tailerrean Bidezko Merkataritzako bi osagai erabiliko dira eta Farmacook-en (Ego Gain, 16) jasoko dira, dohainik, martxoaren 13an (10.00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara).



## Juan Bautista Gisasolaren koadroaren dohaintza

Aurreko astean Juan Bautista Gisasola Eibarko Udal Musika Eskolan egindako ekitaldian, eskolari izena ematen dion musikagile eibartarraren senideek bera agertzen den margolan bat eman zioten dohaintzan Udalarari. Koadroa hartzeko ekitaldian Jon Iraola alkatea, Patxi Lejardi Kultura zinegotzia eta Iraide Ansorena Musika Eskolako zuzendaria egon ziren eta, eskerrak ematearekin batera, koadroa ipintzeko toki aproposa bilatuko dutela adierazi zieten Gisasolaren familiakoei.



## Erakusketari lotutako mahaingurua eguaztenean

Martxoaren 26ra arte Portalean ikus daitekeen “Bizia zaintzen. Basoa. Biodibertsitatea. Bizitza” erakusketarekin batera, eguaztenean mahaingurua egingo da, 19:00etan, Artekom - Energia Trantsiziorako Artea eta Komunikazioa taldeak antolatuta eta Carmen Marin Ruizek koordinatuta. Hizlariak Mikel Jauregi Oregi (Eibarko Baso Biziak taldeko presidentea), Mikel Garate Arakama (artista eta EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaslea) eta Jose Angel Lasa Garicano (eskultorea eta EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaslea) izango dira. Saioan euskaraz eta gaztelaz arituko dira.



## Bi emakumeren testigantzak ipini ditu online Ego Ibarrak

Egoibarra batzordeak Andresi Zabala Abasolo eta Matilde Isasi-Isasmendi Gallastegiren lekukotasunak jaso ditu, Eibartarren Ahotan proiektuaren baitan. Andresi eta Matilde aski ezagunak dira Eibarren, osasun arloan egin duten lanagatik. Bataren zein bestearen lekukotasunen grabazioak egoibarra.eus webgunean, Eibartarren Ahotan atalean aurkituko dituzue.

## Domekan itxiko da Eguen Zuri lehiaketara aurkezteko epea

Arrate Kultur Elkartek antolatutako XXV. Eguen Zuri Argazki Lehiaketan lanak aurkezteko epea domeka eguerdian amaituko da. Argazkiak zuri-beltzean nahiz koloretan egon daitezke eta egile bakoitzeko gehienez hiru argazki onartuko dituzte Bai argazki bidalketa, bai izen ematea, era digitalean egingo dira, eguenzuri2023@gmail.com posta helbidean.

## Mintza On Internet bidezko mintzapraktika programa




Ikasleei euskaraz hitz egiteko aukera gehiago emateko helburua duen Mintza On mintzapraktika programa probatuko du Eibarren Akebaik herriko ikastetxe

guztietako LH3 eta LH4 mailetako 24 ikaslerekin. Ebete Aholkularitza Zerbitzuak sortutako egitasmoa da Mintza On eta ikasleak bere etxetik hartuko du parte, ordenagailu edo tablet bidez konektatuta, sei laguneko taldean, astean egun baten, 45 minutuko saioan. Saioak dinamizatzaile batek gidatuko ditu, era ludikoan, jolasen bidez, eta ahozko konpetentzia linguistikoetan trebatzeko bideak landuko dira.




## ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6	4		2			
				8	7	
	2		3	6		4
	6			4		3
5		2		1	4	6
1			6			8
	1		5	3		2
		5	1			
			4		5	7



soluzioa

S  
U  
D  
O  
K  
U

soluzioa

## ZERTXOBAIT ZAILAGOA


	7		2	5	6	
				9		
6		1				8
		3	7	4		
	7		5	9		
	5		8	4		
8				6		5
			5			
	2	9		4		3

## BURUA ASTINTZEKO

- 1) Zaldi zuri bat Itsas Beltzean sartzen bada, zelan irtengo da?
- 2) Bikote ezkonberria ezkondu nahi bada, baina eliza itxita badago, zelan egin beharko du?
- 3) Tren elektriko bat Iparretik Hegoaldera badoa, norantza botako du kea?

## SOLUZIOAK

1) Itsas Beltzean sartzen bada, zelan irtengo da?



## IZAKI HAUEK ARTEAN, NON DAGO PATATA?

## BURUA ASTINTZEKO

- 4) Zenbat animalia ditut etxean jakinda denak txakurrak direla bi kenduta, denak katuak direla bi kenduta eta denak loroak direla bi kenduta?
- 5) Artzain batek 15 ardi baditu eta denak hiltzen bazaizkio bederatzik kenduta, zenbat geratuko zaizkio?

## SOLUZIOAK

4) Txakur bat, katu bat eta loro bat.



Zer bide jarraitu  
behar duzu  
sorgina  
zeharkatzeko?

SARRERA

ARTEERA

# Martxoak 10/16

## BARIXAKUA 10

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Lagun beltz asko" (Ados Teatroa & Bidebitarte). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## ZAPATUA 11

### 10. URTEURRENA

**13:00** Ernairen 10. urteurrena. Ekitaldi politikoa. Errebal.  
**13:30** Trikipoteoa.  
**14:30** Bazkaria (Errebal).  
**17:30** Gazte Olinpiadak. Untzaga.  
**19:00** Karropoteoa.



### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Paūra" (Lucas Escobedo konpainia). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## MARTITZENA 14

### MENDI JARDUNALDIAK

**18:30** Mendi Tour Eibar: "Creation Theory", "Spindrift: The Barry Blanchard Story" eta "Everest - Sea to Summit". 5 euro. Coliseo.

## LITERATURA

**19:00** Idazlearekin Harixa Emoten: Usue Egiaren "Ura leporaino". Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal. Portalea (3. batzartokia).



## EGUAZTENA 15

### MINTEGIA

**09:00/13:30** Euskararen sozializazioa eta transmisioa mintegia. Armeria Eskola (areto nagusia).

### IBILALDIA

**09:11** Ikasten elkartearekin: Zaldibar-Durango. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua, Estaziñotik (**09:13** Ardantzatik).

### MENDI JARDUNALDIAK

**18:30** Mendi Tour Eibar: "Iretargi", "Egoland", "Into the Ice" eta "Doo Sar". 5 euro. Coliseo.



## MAHAINGURUA

**19:00** "Basoa. Artea eta ekologiaren ikuspuntutik". Hizlariak: Mikel Jauregi Oregi (Eibarko Baso Biziak), Mikel Garate Arakama (Artista eta irakaslea UPV/EHU), José Angel Lasa Garicano (Eskultorea eta irakaslea UPV/EHU). Portalea.



## EGUENA 16

### HITZALDIA

**10:00/12:00** "Transexualitatea", Naizen elkartearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

### URTEKO BATZARRA

**19:00** Eibarko Klub Deportiboko Batzar Nagusia. T. Etxebarria, 16.

## ERAKUSKETAK

### Martxoaren 17ra arte:

- "ITSASPEKO BIHOTZAK" erakusketa didaktikoa Eibarren. (Errebal Plazia).

### Martxoaren 19ra arte:

- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN". (Museoa).

### Martxoaren 26ra arte:

- "BIZIA ZAINTZEN - BASOA. BIODIBERTSITATEA. BIZITZA". (Portalea).  
 - "LARANJEN ARTEAN" (Saioa Burutaran) eta "URTAROAK" (Maite Rosende). (Portalea).

### Martxoaren 31ra arte:

- "EIBARKO SOZIALISTEN 125 URTEAK". (Herriaren Etxea).

## Eskualdeko Agenda

### ELGOIBAR

**10ean (BARIXAKUA)**

### ANTZERKIA

**19:00 / Herriko Antzokia**  
 "Familia sarekada"  
 (Vaivén Produksioak)

### SORALUZE

**10ean (BARIXAKUA)**

### DANTZA ETA KANTUA

**20:00 / Herri Antzokia**  
 "Amaraura", Amair Luluaga eta Oihana Iguaran



### ERMUA

**10ean (BARIXAKUA)**

### KONTZERTUA

**20:30 / Ermua Antzokia**

Ainoa Buitrago

**11n (ZAPATUA)**

### SAGARDO EGUNA

**12:30 / Orbe kardinalaren**

Plaza

### KONTZERTUA

**20:00 / Lobiano Kulturgune**

Blues kontzertua:

The Cyborgs



# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **11n:** 22:30
- **12an:** 20:00
- **13an:** 20:30

**"Almas en pena..."**  
KOMEDIA BELTZA



2022/Erresuma Batua/114'  
Zuzendaria: Martin McDonagh  
Aktoreak: Colin Farrell,  
Brendan Gleeson, Kerry Condon  
Drama/Lagunartekoa

## 2 ARETOA

- **11n:** 22:30
- **12an:** 20:00
- **13an:** 20:30

**"El caftán azul"**  
DRAMA



2022/Maroko/122'  
Zuzendaria: Maryam Touzani  
Aktoreak: Saleh Bakri, Lubna  
Azabai, Ayoub Messioul  
Homosexualitatea

## ANTZOKIA

- **11n:** 17:00 (1 Aret.), 19:45 (1)
- **12an:** 17:00 (1 Aret.), 20:00
- **13an:** 20:30

**"Scream VI"**  
BELDURRA



2023/AEB/123'  
Zuzendaria: Matt Bettinelli  
Aktoreak: Melissa Barrera,  
Janna Ortega, Courtney Cox  
Thriller-a/Hilketak/Sekuela

## ANTZOKIA

- **11n:** 17:00 (2 Aretoa)
- **12an:** 17:00

**"King, mi pequeño rey"**  
ABENTURAK



2022/Frantzia/105'  
Zuzendaria: David Moreau  
Aktoreak: Gerard Damon,  
Lou Lembrecht, Leo Lorceach  
Animaliak/Familia-zinea

## 2 ARETOA

- **4an:** 19:45
- **5ean:** 17:00

**"Irati"**  
FANTASIA



2022/Euskal Herria/114'  
Zuzendaria: Paul Urkijo  
Aktoreak: Edurne Azkarate,  
Eneko Sagardoy, Itziar Ituño  
Erdi Aroa/Mitologia/Abentura

**Juanito eta Marialui**  
12. URTEURRENA / 6. URTEURRENA

**"Adiorik ez, aita, ama zuentzat besarkada eta muxurik goxoa"**  
- NEREA -

**FUNEUSKADI**  
Funeraria Mugica

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

TANATORIO EIBAR  
TANATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27  
Elgoibar: Xizilon, s/n. SIGMA Industrialdia (Glasoko hilerriaren ondoan)  
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20  
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ALAIN**, hillaren 2xan 13 urte bete zenuaz-en-eta. Musu haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MALEN** Gisasola, eguaztenian 7 urte egin zenuaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IBAN**. Bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ELIANA!** Atzo zure eguna izan zalako. Milla musu famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NILE!** Bixar 3 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Nahiaren partez!



Zorionak, **EKAIN!** Hillaren 14an urtetxua beteko dozu-eta. Patxo erraldoi bat famelixaren eta, batez be, ama eta aittaren partez.



Zorionak, **IXABA**, astelehenian 8 urte bete zenuaz-en-eta. Musu pillua famelixa guztiaren eta, batez be, amama Arrateren partez.



Zorionak, **ANDER**, domekan 6 urte egin zenuaz-en-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak aitatxo eta aitita **JOXE!** Munduko onena zara!! Etzi ondo ospatuko dogu, danok elkarrekin.

**Felisa Bolinaga Askasibar**

2023/03/06

"Elgetan jaio zinen eta Elgetan utzi gaituzu. Ahizpa, ama, amama, birramama eta lagun... Bizitzan eredia izan zarelako, jango ditugun frito eta loratuko den geranio bakoitzarekin **GOGORATUKO ZAITUGU**"

**MAITE ZAITUGU**  
- ETXEKOAK -



**Karmelo Basaras Mendiola**

20. URTEURRENA  
2003/03/09

"Itsasoak elorriak astintzen ditu oroitzapen gozoak haizetan iltzatuz"

**BETI GURE BIHOTZEAN**  
- ETXEKOAK -




# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatiki. 657795876 (arratsalde).
- Eibartar gazte batek baserria erosiko luke Eibarren. Edozein egoeratan dagoelarik, ikusteko prest dago. 688631803.

### 1.2. Errentan

- Pisua konpartituko nuke edo logela bat hartuko. 646131301.

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. 631907807.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. 652532589.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da ileapaintzaile bezala. Esperientzia automakilajearen. Baita beste edozein lanetarako ere. Externa. 602105368.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde nagusiak edo gaixoak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera edo saltzaile eta bulegoak garbitzeko. 631102067.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 641456656.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (agiri sozio-sanitarioekin) eta gabiketarako egiteko. 631125127.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643374471.

- Emakumea eskaintzen da pisuak eta obren amaierak garbitzeko. 638421827.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 631768713.
- Emakumea eskaintzen da gauze eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. 632950201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauze ere. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 640881328.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631687276.

- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632794799.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624127122.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624127087.

- Emakumea eskaintzen da andrakeria zaintzeko (agiri sozio-sanitarioekin). Autoarekin. 612223075.

- Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 631907807.

- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde umeak zaintzeko. Esperientzia eta magisteritza ikasketekin. 648625209.

### 4.2. Langile bila

- Emakumea behar da goizez bi ume txiki zaintzeko. 633647568.
- Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Ileapaintzaile behar da jorنادا osorako. 619928881.
- Emakumea behar da Eibarko denda batean. Jornada erdiz, arratsalde, martitzenetik zapatara. Bidali curriculum: eibartienda@gmail.com
- Langilea behar da interna moduan pertsona bat zaintzeko. 688678934.
- Dendaria behar da modadenda batean. Arratsaldeko ordutegian. Laga curriculum: Closet denda (Estaziño, 10).
- Ileapaindegi batean esteti-

cien edo/eta azazkaletan eta pedikuran esperientzia duena behar dute. 686256940 (whatsapp).

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrik ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Egongela-jangelako kristalezko mahai handia eta egurkoloreko eskritorioa salgai. Ia berriak. Prezio interesgarria. 606882043.

### 6.2. Eman

- Hiru pertsona laminadun (1'60ko luzerakoak) oparitzen dira. 656732584.

### 6.4. Bestelakoak

- Etxerako altzariak behar ditut (ohea, sofa, armairuak...). 632310865.



errigora

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta  
eskutik eskura

# Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio  
birjina estra, kontserbak, arroza, pasta  
eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta  
ekoizlearen jatorrizko prezioan.

[errigora.eus](http://errigora.eus)



Bete ezazu  
despentsa  
*urte guztirako*





# eibartarron bizitzak...

ehbildu  
EIBAR

2023-KO AURREKONTUETAN AKORDIOA lortu du eh bilduk eta **eibartar guztien bizi kalitatea** hobetzen jarraitzeko neurriak adostu ditugu

- **Hilerria tamainaz txikitzea**, Urkin aisialdirako gune berria eta aparkalekuak sortzeko.
- Barrena eta Barakaldoko haur parkeak parte-hartze ariketa bidez berritzea.
- **Hiriko haur parkeak** berritzeko eta estaltzeko **plana**.
- Eskilara mekanikoak igogailuengatik aldatzeko plana.
- Karabanen aparkalekua beharrezko hornidurekin **Itzion**.
- Eibarko **etxebizitza sozialaren zerbitzua** sortzeko lehen urratsak ematea.
- **Nagusientzako etxebizitza komunitarioen** parkea sortzeko plana.
- Kultura eta sormena sustatzea:
  - Herria eraberritzeko Street Art Festibala sortzea
  - Urteroko musika lehiaketa sortzea
  - Dinamizatzaile soziokulturala kontratatzea
- Lehen sektorean **errelebo generazionala** sustatzeko plana.
- Eibarko **lehen sektorearen gida** sortzea.
- **Eguzki plakak** instalatzeko formakuntza eskaintzea.
- Hainbat herriko eragileei **dirulaguntzak** ematea: Iperuako Merkatu Plaza, Katubeltz, AEK, Klub Deportiboa, ...eta kitto!
- ...

Gure herritarren bizitza etengabe hobetzeko

**erantzukizun soziala eta anbizioa dugu.**

HORI DA GURE KONPROMISOA. Eta zentzu horretan lanean jarraituko dugu!

ehbildu

EIBAR

...hobetzeko  
prest gaude!